

XI. Felix Sopelana Memoriala

2015/07/22

Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargoak antolatzen du memoriala eta karrera amaierako proiektuen sariak pasa den asteazkenean banatu ziren. Ekitaldian Eibarko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolak, Donostiako Eskola Politeknikoak eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak parte hartu dute.

Guztira 9 proiektu aurkeztu dira bi kategoriatan banatuta: Karrera amaierako lehenengo eta bigarren proiektu onenak eta lehenengo eta bigarren Azterketa Tekniko onenak.

Goi Eskola Politeknikoko Edurne Urteaga eta Unai Cobosek saria jaso dute Karrera Amaierako Proiektu onenen kategorian, lehenengo eta bigarren saria hurrenez hurren. Ander Domínguez, Ander Telleria eta Igoín Insaustik diploma bat jaso dute euren proiektuengatik.

Aurkeztutako lanen eta horien memorien (eduki, egitura eta bibliografía) originaltasun eta izaera berritzailea nabarmendu dira.

